

euskararen berripapera

21
EUSKARA



ale berezia

Euskararen Aholku Batzordeak

Euskara 21 en azken txostena bere egin du



Euskararen Aholku Batzordeko kideak.

Euskararen Aholku Batzordeak (EAB) "Itun berri baterantz" izeneko txostena bere egin zuen urtarrilaren 30eko osoko bilkuran.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak XXI. mendean garatu beharreko hizkuntza-politikaren inguruan eztabaida eta hausnarketa bultzatu nahi zuen 2005-2009ko legegaldian, eta hori *Euskara 21* ekimenaren bidez egin da. Orain arte hizkuntza-politikaren alorrean egindako bidea aztertu eta ondorengo urteetan eman beharreko pausoak zehaztu dira. Bestalde, euskararen normalkuntzaren inguruan adostasun politiko eta sozial berri bat lortzeko ahaleginak indartu nahi izan dira.

Hori egite aldera, Euskararen Aholku Batzordeak bere baitan eratu zuen "XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak" izeneko batzorde-atala. Bertan, erakunde publiko, hezkuntza, kultura, komunikabide, enpresa, alderdi politiko, sindikatu, euskalgintza, gizarte elkarte eta ekonomia arloko 40 lagunek hartu dute parte. Funtzionamendua errazte aldera zazpi lagunek osatutako batzorde iraunkorra osatu zen. Zazpi laguneko batzorde iraunkorrak "Oinarrizko Txostena" atondu zuen. Txosten hori 40 lagunek osatutako batzorde-atalaren eta herritarren esku jarri zuten, nork bere ekarpenak egin zituzan. Helburua horixe baitzen, euskal gizarte osoa erabat irekita dagoen hausnarketara bultzatzea.

Euskal gizarteak hizkuntza-politikariari buruzko eztabaidan parte har dezan Euskara 21 webgunea jarri zuten abian. Batetik, 2007an prozesua hasi zenetik batzorde kideek sortutako txosten eta ekarpen guztiak zintzilikatu dira. Eta bestetik, herritarrek hizkuntza-politi-

karen etorkizunaz hausnarketak idazteko aukera izan dute. Aurtengo urtarrilaren bukaera bitartean 35.938 bisita izan zituen webgunea. Herritarren 11 ekarpen luze daude zintzilikatuta eta ekarpen laburrak eta iruzkinak berriz, 594 dira. Beste zenbait webgunetako iruzkinak bilduz gero 4.954 dira *Euskara 21* prozesuari egindako erreferentziak.

Gogoeta irekiaren ondoren batzorde iraunkorrak amaierako txostena, "Itun berri baterantz" izenekoa, idatzi eta aurkeztu zuen urtarrilean. Ordu askotako eztabaidaren ondoren egindako txostena da, ikuspuntu asko entzun eta kontrastatu ondoren egindakoa. Adostasunaren emaitza da eta itun berri batera heltzeko aurrerapausoa. Txostenak etorkizunera begira hizkuntza-politikak izango dituen lehentasunezko ildoak eta abiapuntu zein oinarriak azpimarratu ditu. Hurrengo bi orrialdeetan ikus ditzakezue ildo eta oinarri horiek.

Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak poza agertu du bi urteko ibilbideaz. Baztarrikak eskerrak eman dizkie, lehenik, batzorde iraunkorreko kideei, kantitatez zein kalitatez egindako lanagatik. Bigarrenik, "XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak" batzorde-ataleko kideei eman dizkie eskerrak beren ekarpenengatik. Hirugarrenik, herritarrei eskerrak eman dizkie Interneteko foroetan eta prentsan egindako hausnarketengatik. Laugarrenik, kazetari eta hedabideei eskertu die *Euskara 21* eztabaidari proiektioa emateagatik, eta era berean prozesu horren helburuetako bat betetzen laguntzeagatik, hau da, hizkuntza-politikari buruzko eztabaida eta hausnarketa gizarteratzeagatik ●

Itun berri Gogoeta irekiaren

Lehentasunezko ildoak XXI. mende hasierako hizkuntza-politikarentzat

- Euskararen ezagupena eta erabilera belaunaldi berrietan bermatzea.
- Euskara ohiko hizkuntza izango duten arnasgune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko. Azken batean, helburua ez baita euskararen ezagutza zabaltzea, besterik gabe, baizik eta euskal hiztunak sortzea.
- Familia-transmisioa bermatzea, oso bereziki 25 urte barru izango diren 30 urtez azpiko gazte elebidunek euskara ere izan dezaten etxeko hizkuntza. Hauxe dugu etorkizunaren gako nagusia.
- Euskal hitzunen erkidegoa trinkotzea, euskararen erabilerarako sare operatibo presentzialak zein birtualak hedatuz eta indartuz.
- Hiri handietan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea, familia euskaldunei, gazteei eta haurrei lehentasuna emanez.
- Elebitasun pasiboa helduen munduan –eta gutxieneko helburutzat– areagotzea eta prestigioatzea.
- Euskarazko kultura kontsumoa indartzea, euskal kultura industria, ekoizle eta sortzaileekiko ikuspegi askatzaile batetik.
- Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbiltzea, hauen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko eta euskara erabilera-eremu demografiko ki dinamikoetara hurbiltzeko xedez.
- Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, hiztun berrien adierazkortasunaren



mesedetan. Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarenera eta adierazkortasunarenera igarotzea.

- Hizkuntza eskubideak eremu publikoan aitortzeko ez ezik errespetatzeko bidean, euskara erabiltzeko aukerak bermatzea.

- Euskararen erakargarrtasuna lantzea eta era egokian proiektatzea: euskarak mundu ugari ditu bere baitan, eta euskarara datozenen munduentzako tokirik ere badu bere barnean. Proiektatzen dugun baino anizkoitzagoa da euskararen unibertsoa, eta are anizkoitzagoa egin beharra dugu, gizartearen pare anizkoitza izatera iritsiko bada.

- Euskararen irudiari prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz, batetik, eta, bestetik, euskal gizartearen kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.

- Hizkuntzaren teknologiak (informazio eta komunikazioaren teknologiak euskararen garapenerako baliatzea), sarerako euskarazko edukiak sortzea eta komunikaziorako sare birtualak era egokian baliatzea, euskararen normalkuntza eta erabilera aukeren mesedetan. Izan ere, euskarak informazio eta komunikazioaren teknologiez baliatu behar ditu, horixe baitu ezinbesteko baldintza hizkuntza guztiz garatua izatera iristeko.

- Hizkuntza politikaren inguruko akordiorik zabalena etengabe elikatu eta sendotzea, euskararen biziberritzea eta kohesio soziala estu lotuko dituen itun berri baten bila ●

baterantz

ondorengo txostena

Itun berritu baterantz urratu beharreko bidean garatu beharko liratekeen abiapuntuak eta oinarriak



- **Adostasunean, pertsuasioan eta tinkotasun demokratikoan oinarrituriko hizkuntza-politikaren premia**

Hizkuntza-politika diseinatu eta kudeatzen dutenek ahalik eta adostasun edo kontsentsu zabalena erdiesteko etengabeko ahalegina egin behar dute. Herritarren atxikimenduak bakarrik bihur ditzake jasangarri hizkuntza-plangintzak sor ditzakeen ezerosotasunak.

- **Progresibotasuna: atxikimendua, egingarritasuna eta erritmo egokia lotzen dituen printzipioa**

Kontua ez da estropada sozial zalapartatsu bat antolatzea, baizik eta ontziko arraunlari guztiak, indartsuena bezala ahulena ere gizarte eleanitz baten helmugara iristea, kohesio sozialaren bidean barrena. Beraz, presa eza eta gehiegia, biak ala biak eta neurri berean, dira euskararen biziberritzerako kaltegarriak.

- **Euskara, nazio-adskripzioa eta politika: erantzukizun sozialaren talaiatik zaindu beharreko harremanak**

Euskarak ez du batere onurarik jasotzen jarrera politiko jakin batekin edo beste batekin identifikatuzetik; aitzitik, identifikazio horrek aldendu egiten ditu jarrera politiko horrekin bat ez datozenak, eta hori da, hain zuzen ere, euskara gizarte eleanitz baten baitan biziberritzea helburu duen hizkuntza-politikaren aurka doan praxia.

- **Euskara biziberritzea, herritar oren erabakimenaren baitako kontua, akordio zabal eta eratzaille baten ikusmiran**

Ezin da erdararen eta euskararen munduen arteko dibortzioa betikotu: herritar guztiei (baita euskaratik urrun daudenei ere) dago-kie hizkuntza-politika itxuratzea, adostea, mamitzea. Ez baitago “euskararen auzia”, euskal herritarren hizkuntzen arteko bizikidetzaren auzia baizik.

- **Itun berrituaren bidean behar den adostasunaz**

Bi elementu eskatzen ditu kontsentsuaren aldeko jarrera honek: malgutasuna eta aldekotasuna. Herritar gehienek borondatea behartuko lukeen konpromisoa ez litzateke egokia izango, eta horregatik behar da malgutasuna; baina, aldi berean, aldekotasunari bizkarra erakutsiko liokeen malgutasuna ere ez litzateke onargarria izango ●



“XXI. mende hasierako hizkuntza-politikaren oinarriak” batzorde-atal berezia

- Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, batzorde-ataleko lehendakaria
- Erramun Osa Ibarloza jauna, idazkaria
- Kike Amonarriz Gorria jauna
- Aurelia Arkotxa andrea
- Joseba Arregi Aranburu jauna
- Mikel Basabe Kortabarría jauna
- Koldo Biguri Otxoa de Eribe jauna
- Garbiñe Biurrun Mancisidor andrea
- Ana de Castro Rubalkaba andrea
- Ana Eizagirre Garate andrea
- Lore Erriondo Korostola andrea
- Miren Dobarán Urrutia andrea
- Gotzon Egia Goienetxea jauna
- Ramon Etxezarreta Aizpuru jauna
- J. Iñaki Etxezarreta Alberdi jauna
- Itziar Idiazabal Gorrotxategi andrea
- Iciar Lamarain Cenitagoya andrea
- Gorka Landaburu Illaramendi jauna
- Miguel Lazpiur Lamariano jauna
- Anjel Lertxundi Esnal jauna
- Jose Luis Lizundia Askondo jauna
- Alberto Lopez Basaguren jauna
- Lucía Martínez Odriozola andrea
- Koldo Martínez Urionabarrenetxea jauna
- Jasone Mendizabal Altuna andrea
- Garbiñe Mendizabal Mendizabal andrea
- Xabier Mendiguren Bereziartu jauna
- Ludger Mees jauna
- Mertxe Mugika Balanzategi andrea
- Pedro Ochoa Bernales jauna
- Eneko Oregi Goñi jauna
- Carlos Ruiz Gonzalez jauna
- Pello Salaburu Etxeberria jauna
- Tomás Uribeetxebarria Maiztegi jauna
- Ana Urkiza Ibaibarriaga andrea
- Andres Urrutia Badiola jauna
- Jesus Uzkudun Ilarramendi jauna
- Mikel Zalbide Elustondo jauna

Batzorde-atal iraunkorra

- Aurelia Arkotxa andrea
- Lore Erriondo Korostola andrea
- Alberto Lopez Basaguren jauna
- Eneko Oregi Goñi jauna
- Pello Salaburu Etxeberria jauna
- Erramun Osa Ibarloza jauna, idazkaria
- Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, batzorde-atalburua



Euskara 21 webgunea

www.euskadi.net/euskara21

- Bisitak: 35.938
- Jasotako ekarpen luzeak: 11
- Jasoteako ekarpen laburrak eta iruzkinak: 594
- Interneteko beste webguneetan jasotako iruzkinak: 4.954
- Prentsan argitaratuak: 141

Patxi Baztarrika

“Hizkuntza-politikaren ganean inoiz egin den eztabaidarik zabal eta handiena”

«Bat baino gehiago izan dira esan dutenak, eta uste dut arrazoi dutela: aspaldiko urteetan gure artean hizkuntza-politikaren ganean izan den eztabaidarik zabal eta handiena izan da, bai parte hartzaile kopuruari dagokionez, baita eztabaidara jarri diren ikuspuntuaren ugartasunari dagokionez ere. Soseguz eta errespetuz, baina zorrotasun eta gordintasunez, sakon eztabaidatu da. Denok ikasi dugu zerbait, eta norberaren jarretatik lagun hurkoaren arrazoiak hurreratzeko ahalegina egin da. Eta hala izan behar du, bai behintzat egia baldin bada denok esan ohi duguna: euskara denona dela».